

Kriptoaktiboen zerbitzuak ematean interes- gatazkak detektatzeari eta kudeatzeari buruzko informazioa

2025eko martxo

Zer helburu du dokumentu honek?

Kriptoaktiboen merkatuei buruzko 2023/1114 (EB) Erregelamenduak ("MiCA" ingelesezko sigletan) eta hori garatzen duen araudiak jarduera horretan sortzen diren interes gatazkak identifikatu, prebenitu eta kudeatzea eta hartutako neurrien berri bezeroei eta bezero potentzialei ematea eskatzen diete kriptoaktiboen zerbitzuen emaileei, horien artean BBVAri. Dokumentu honen xedea da betebeharrak hori betetzea.

Zer kriptoaktibo-zerbitzu ematen ditu BBVAk?

Gaur egun, BBVAk kriptoaktibo-zerbitzu hauek ematen ditu soilik bankuan kontu bat irekita duten bezeroentzat: zaintzea eta administratzea, eta legez eskatutako kasuetan irteera-aginduak eta -transferentziak betearaztea. BBVAk ez du inolako aholkularitza edo gomendiorik eskaintzen kriptoaktiboei buruz. Adierazitako zerbitzu horiek bezeroen ekimenez baino ez dira ematen.

Zer dira interes-gatazkak eta nola detektatzen eta kudeatzen dira?

Interes-gatazka bat gertatzen da langile, zuzendari, agente edo kontrol-harreman baten bidez BBVArekin zuzenean edo zeharka lotura duen edozein pertsonak interes pertsonal edo profesionalak dituenean, eta interes horiek eragina izan badezakete haren betebeharretan eta eragin negatiboa izan badezakete gure bezeroengan, oro har gizartearengan, BBVArengan edota haren akziodunengan.

Gatazka horiek prebenitzeko eta kudeatzeko, BBVAk barne-politika, -arau eta -prozeduretan oinarritutako kontrol-esparru bat du, osotasunez eta gure bezeroen mesedetan jokatzeko dugula ziurtatzeko pentsaturik dena. Zehazki, honako neurri orokor hauek ditu:

- Aurretiko azterketa: produktu edo zerbitzu berri bat iragarri edo merkaturatu aurretik, egon daitezkeen gatazkak eta horiek nola gutxitu aztertzen da.
- Funtzioen eta arloen bereizketa: gatazka sor dezaketen jardueretan pertsonen parte hartzea saihesteko, bereizi egiten ditugu funtzioak edota taldeak, eta informazio-langa batzuk ezartzen ditugu erakundeko arloen artean.
- Interes-gatazkak gerta daitezkeen jarduera edo prozesuetan onarpena emateko edo erabakiak hartzeko mekanismoak, adibidez batzordeak edo foroak.
- Bezeroei zerbitzuak ematen dizkieten edo kontrol-funtzioak betetzen dituzten langileentzako ordainsari-eskema egokiak.
- Langileentzako eta zuzendarietarako jarduera-jarraibide orokorrak, osorik eta arduraz joko dezaten, bezeroen, hornitzaileen, akziodunen eta abarren arteko tratu-berdintasuna bermatuz. Jarraibide horiekin batera, etengabeko prestakuntza eta komunikazioko programak daude.
- Interes-gatazken erregistroa eta jarraipena: BBVAk tresna batzuk ditu identifikatutako gatazkak erregistratu eta kudeatzeko, beharrezkoa denean zuzendaritza-organoei jakinaraziko zaizkiela ziurtatuz.

Hauteman al da interes-gatazkaren egoeraren bat kriptoaktiboen zerbitzuak ematearen esparruan?

Kriptoaktiboen zerbitzuak emateari dagokionez, ez da hauteman interes-gatazkaren egoeraren bat, honako arrazoi hauengatik:

- BBVAk bezeroen ekimenez bakarrik ematen ditu kriptoaktiboen zerbitzuak, eta, beraz, ez dago aukerarik bere langileek bezeroengan eragiteko zerbitzuak kontratatzean.
- BBVAk ez du inolako aholkularitza edo gomendiorik eskaintzen kriptoaktiboei buruz, eta, beraz, ez dago aukerarik bere langileek bezeroak konbentzitzeko kriptoaktiboen zerbitzuak kontrata ditzaten.
- BBVAk modu sekuentzialean eta automatizatuan transmititzen ditu bezeroen kriptoaktiboak erosteko eta saltzeko aginduak, eta ez dago aukerarik batzuei beste batzuen aldean laguntzeko, eta ezin dira metatu norberaren konturako eragiketekin edo beste bezero batzuen eragiketekin.

- Gainera, BBVAk prozedura egokiak ezarrita ditu kriptoktiboen transakzio pertsonalak onartzeko eta deklaratzeko orduan bezeroek ematen dituzten aginduei buruzko informazioa izan dezaketen pertsona jakin batzuentzat, informazio hori beren onurarako erabiltzen ez dutela kontrolatzeko.
- BBVAk modu bereizian eta independentean zaintzen ditu bezeroen kriptoktiboak, norberaren posizioetatik bereizita, interes-gatazka posiblerik egon ez dadin.
- BBVAk gardentasun-, objektibotasun- eta lehia-printzipioetan oinarrituta hautatu ditu kriptoktiboen zerbitzuak ematen esku hartzen duten hornitzaileak, interes-gatazkarik ez dagoela ziurtatuz. Horrez gain, hornitzaile guztiek BBVA Taldearen hornitzaileen kode etikoa sinatuta dute, zeinak horretarako betebeharrak ere zehazten eta jasotzen baititu.
- Horrez gain, BBVAk kriptoktiboen “zerrendatze” eta “deszerrendatze” prozesu bat du, bere eskaintzan sartzeko. Prozesu horretan hainbat faktore aztertzen dira, horien artean benetako edo balizko interes-gatazkak. Ez da hauteman interes-gatazkarik eskaintzan jasotzen diren kriptoktiboek dagokienez.

Nolanahi ere, kriptoktiboen zerbitzuak ematen diren bitartean egoeraren batean hartutako neurriak nahikoak ez badira interes-gatazka potentzial batek eragin ditzakeen kalteak ezabatze edota gutxitze, bezeroei jakinaraziko zaie dagokion erabakia hartu aurretik, beren interesentzat erabakirik onena har dezaten.